

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

314 - 2023ko EKAINA



IRAGANA  
DESESTALTZEN



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

## ZUZEN ETA JATOR

### \*Kristoren polita da!

Kristoren esapidea oso, arras, hagitz eta antzekoen gisa erabiltzen da. Beraz, beti eskuinean izen bat eduki behar du. Adibidez:

Kristoren **haserrea** dauka,

Zaratak kristoren **buruko mina** eragin zidan.

Horregatik, honako adibide hauek, izenarekin ez doazenez, adjektibo batekin baizik, ez dira zuzenak: \*kristo(re)n polita (oso polita), \*kristo(re)n interesantea (hagitz interesantea). \*Kristo(re)n ongi (ikaragarri ongi) eta \*kristo(re)n gaizki (oso gaizki) ere ez dira zuzenak, ongi eta gaizki adberbioak baitira (nola galderari erantzuten diote).



ikaraitz-betelu

## · MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

## · ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/maillopealdizkaria](http://issuu.com/maillopealdizkaria)

## · ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandezena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Larrageta eta Andoni Tolosa.

## · ARGAZKIAK:

Juan Antonio Garaikoetxea, Asier Mikeo, Manex Torrado, Maite Aizpurua, Xabier Etxarri, Aitor Goikoetxea, J.K. Zubieta, Itsaso Aldaia Landa, Joseba Eskamendi, Goiztiarrak MLT, Larraun Pilota Elkarte, Araxes Pilota Elkarte, Iñaki Andres, Labrit.

## · PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [maillope@labrit.net](mailto:maillope@labrit.net).

## · MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

## · TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

02

ZUZEN ETA JATOR

04

KUXKUXEAN Ekaineko zorion agurrak

08

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

10

BATZARRE

12

ELKARRIZKETA


Itsaso Aldai Landa



16

ERREPORTAJEA

Egunsentiari bidea erakusten



20

KIROLA

22

ERREPORTAJETXOA

Aitortza lehen sektorean hasi diren larraundarrei

24

KULTURA

27

MAITE DITUT MAITE

Malloen lehenengo sei tontorren buelta

28

PLAZATIK PLAZARA

Inauguratu dira Pagalletako galtzinlabearen egindako lanak




31

AGENDA




**Adur Goikoetxea  
Arévalo**

Ekainaren 27an, 9 urte.  
Zorionak, Adur!!!  
Segi horrela, beti  
irribarre batekin.  
Muxu handi bat  
famiariaren partez!!!



**Eneko Oreja Altuna**

Ekainaren 23an, 12 urte.  
Arrautzak bezala, dozena bat  
dagoeneko! Segi beti bezain alai ta  
bizkor, Eneko.  
Ongi pasa zure egunean.  
Muxu haundi bat etxekoan partez!



**Kaiet Eskamendi  
Goikoetxea**

Ekainaren 16an, 9 urte.  
Zorionak Kaiet! Oso  
ongi pasa eguna eta  
muxu handi bat familia  
guztiaren partez.



**Lorea Elizondo Otamendi**

Ekainaren 9an, 6 urte.  
Zorionak politte!!  
Egun ederra pasa. Jarraitu izaten  
zaren bezalako.  
Muxu erraldoi bat Oier, aitatxo eta  
amatxoren partez!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren  
20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

ORRA TI **MALLOAK** BEHERA  
— ARTZAI GAZTAK —  
Granja Martikonea, GANTZA, Nafarroa  
Jabi, 649 472 057 + locune, 660 511 097  
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL  

**GALBURU**  
okindegia - panadería  
*Egur-labean egina!*

Alde Zaharra 50  
LEKUNBERRI  
948 50 40 42



**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza



## HILKETA MATXISTAK SALATZEKO ELKARRETARATZEAK

Joan den maiatzaren 16an eta 30ean Orion eta Gasteizen gertatutako hilketa matxistak gaitzesteko elkarretaratzeak egin ziren Euskal Herriko udalerrri askotan; hala nola Araitzen, Larraunen eta Lekunberrin. Azken hamar urteotan, 119 emakume eta 11 ume erailak izan dira Euskal Herrian. Emakumeen ia erdiek 40 urte baino gutxiago zituzten.



## WEBGUNEAN BAZKIDE EGITEKO ARAZO TEKNIKOAK

Mailopen arazoak izan genituen gure webgunean egiten ziren bazkidetzekin, ez baitzitzaizkigun horietako asko heldu. Hori dela eta, kanal horren bitartez bazkidetu bazara azken hilabeteotan, jarri gurekin harremanetan, mesedez. Eskerrik asko Mailope sustengatzeagatik eta barka itzazue, mesedez, eragozpenak.




## GARAI(T)Z GABILTZI! EGITASMOA MARTXAN DA

Araizko herritarrek *Whatsapp* talde bat sortu dute haraneko ibilgailuetan libre dauden lekuak aprobetxatzeko. Funtzio horretaz gain, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko helburua ere badu egitasmoak. Nabigatzailean [labur.eus/garaitz](http://labur.eus/garaitz) idatzita sar daiteke taldean.

## ► Joseba Eskamendi (Betelu)



*Eskerrik asko iloba  
ta zorionak semea  
pozik hartzen dira eta  
bueltan eman loreak  
hori baita aita baten  
edo\_osabaren legea  
ahal den gauzetan behinik  
transmisioan eitea  
izan dadila doinu bat  
ta balona pasatzea  
kulturan edo kirolan  
haria ez etetea (bis)*



*Doinua: Gure herri ttiki hau da.* Hurrengoa: Aitor Goikoetxea (Betelu)

## KEA

Irakasle ikasketak egiten hasi nintzenean, hau da, 1977an, tabakoa erretzea oraindik ez zegoen debekatua inon, alegia, garai hartan oraindik ez zegoen legerik gai hori erregulatzeko, eta, horren ondorioz, pentsa daitekeen bezala, jende gehienak edozein lekutan eta edozein ordutan erretzen zuen tabakoa, inolako errukirik eta errespeturik gabe erretzen ez zutenenganako, eta, gure ikasgeletan ere, beste horrenbeste gertatzen zen, hots, pentsa ezazue, gure gelan, berrogeita hamarren bat pertsona izanen ginen, gutxienez, eta, haietatik, erdiak baino gehiago, behinik behin, erretzaileak. Ikasgelak, garaiak, bai, baziren, baina ez oso luzeak eta zabalak, hortaz, edonork atera dezake kontua, han zer-nolako giroa jarriko zen orduak igaro ahala. Goizeko bederatzietan hasi, hamaiketan, ordu erdiko atsedendaldia, eta, gero, ordu biak arte, neska-mutil gehienak etengabe erretzen. Hantxe jartzen ziren giroa eta eguratsa arrunt astunak eta ezin arnastuzkoak ziren, batez ere, neguan eta eguraldi hotz egiten zuenean, hau da, leiho guztiak itxita egoten zirelako, baina, tira!, hantxe egon behar, nahitaez! Ez zen giro gela hartan.

Ikasgela hartan ere, ni atetik hurbil jartzen nintzen, pare-parean, gutxixeago ibili behar izateko eta errazago molda nendin sartu eta ateratzeko garaian. Alde horretatik oso ongi, baina, leku hark, ordea, desabantaila nabarmen bat ere bazeukan, berehalaxe ikusiko dugun bezala. Izan ere, gure irakasleen artean, gehienak batere kexatzen ez baldin baziren ere, bazen bat, Pascual abizenekoa, oker ez banago, matematikakoa, hain zuzen ere, halako egoerak inondik inora ere jasaten ez zituena, eta, horren ondorioz, gure ikasgelara sartu baino lehen, ateko atalasean plantatu eta zera esaten zigun ozenki, zipzak hartuta:

-Egun on, gazteok! Uf!, hori da hori ke-lainoa! Jasanezina! Bueno, ba, nahi baduzue ni horra sartzea eskola ematera, lehendabizi atea eta leiho guztiak ireki beharko dituzue gela egurasteko, bestela, hemen geldituko naiz! Zuek ikusi! Ea zer erabakitzen duzuen!

Orduan, jakina, irakaslea jarrera irmo hartan ikusita eta eskola hartu nahi genuenez gero, ez genuen beste erremediorik izaten atea eta leiho guztiak irekita uztea baino. Eta, gorago azaldu dudan arrazoiarengatik, ni ate pare-parean egoten nintzen, metro gutxiago egiteko sartu eta ateratzerakoan, baina, noski, nahiz eta nik tabakorik batere erre ez, hantxe pairatu behar izaten nituen keak eta haize-laster hotz guztiak, irakasle haren ikastorduek irauten zuten bitartean. Halaxe, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, matematika geneukan egun oro. Azkenean, ez zen batere harrigarria izaten, nik, noiz edo noiz, eztarriko mina edukitzea, ke astun harengatik, edota hotzeria jasatea, haize-laster hotz eta madarikatu hura zela eta. Zeresanik ez, aukerarik altxatzeko momentuetan ere, askoz ere zailtasun handiagoak izaten nituen, gorputz adar guztiak hoztuta eta gogorturik gelditzen zitzaizkidalako.

Horrela, bada, azkenerako, Hirutasun Santuari gertatzen zitzaion antzeko zerbait pasatu ohi zitzaidan niri ere, alegia, ni pertsona bakarra nintzen, baina, hala ere, hiru kalte batera, gutxienez, jasan ohi nituen kolpe bakar batez, hau da, ke zikina, haize-laster izoztua eta gaixotasun mordo bat, alajainetan!

**Xanti Begiristain Madotz**

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Arantz

Lontxo Otamendi Artola

## GASBIDEAREN INPOSIZIOARI EZ

Begi-bistakoa da burgesiak etekinak lortzearen truk natura gehiegi ustiatu eta gizakiak esplotatzen dituela erreparorik gabe. Horren adibide da gurean Etxeberritik Lekunberriko industrialderaino eraiki nahi duten gasbidea ere.

Epe motzean aberastu beharrak bultzatu ditu Nedgia gasaren multinazionala, Nafar Gobernu eta, orain gutxi, Auzitegi Gorena gasbidearen proiektua bultzatu eta beharrezko baimenak ematera. Gasbidearen etorkizuna eta sortuko dituen kalteak seriotasunez aztertu gabe, baimenak ahalik eta azkarren lortu eta obrak ahalik eta lasterren martxan jartzeko ibilbidea aukeratu dute.

Ez da gasbideak ingurumenean eragingo duen inpaktuaren azterketa tekniko sakonik egin. Era berean, gasbiderik eraiki gabe jarraitzearen aukera ez dago mahai gainean. Ezin dugu onartu halako inpunitatez gure lurren gainean nahi dutena egin dezaten.

Teknologiaren garapena ongizate unibertsalerako erabiltzeko ez dago aukerarik gizarte kapitalista honetan, aldiz, proiektu suntsitzaileak ikus ditzakegu han eta hemen, naturaren eta langileon kaltetan, gutxi batzuen poltsikoak betetzeko.

Horregatik, beharrezkoa da langileriaren interesen defentsan antolatzea eta mobilizatzea. Geroz eta gaitasun propio handiagoak izatea, izan analisi teknikoak egiteko edota proiektu suntsitzaileei aurre egiteko, ekonomiaren eta lurraldearen gainean erabakitze gaitasuna lortuz. Hau da, naturaren eta guztion ongizate unibertsalerako berme bakarra Estatu Sozialistaren eraikuntza da.

Gasbidearen inposizioari ez!

Naturaren babesaren eta lurraldearen gaineko kontrola langileontzat!

**Kontseilu Sozialista Larraun**

**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik

**ALTSASU - IRURTZUN**  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
.....  
**24 ORDUKO TELEFONOA**  
• 948 19 70 70 •  
www.tanatoriosirache.es

**AMAIRU BAR**  
ETXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK  
948504352

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**  
**ANTONIO CARRARO**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com

**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

## UDAL HAUTESKUNDEAK

## ARAITZ



## BOTO BANAKETA




## PARTE HARTZEAREN DATU OROKORRAK

Errolda	436
Zenbatutako botoak	231
Zuriak	44
Baliogabeak	16
Abstentzioa	205

## HAUTETSIAK




## FORU HAUTESKUNDEAK



## BETELU




## BOTO BANAKETA



## PARTE HARTZEAREN DATU OROKORRAK

Errolda	286
Zenbatutako botoak	184
Zuriak	17
Baliogabeak	7
Abstentzioa	102


## HAUTETSIAK



## LARRAUN




## BOTO BANAKETA



## PARTE HARTZEAREN DATU OROKORRAK

Errolda	755
Zenbatutako botoak	409
Zuriak	74
Baliogabeak	22
Abstentzioa	346


## HAUTETSIAK



## LEKUNBERRI




## BOTO BANAKETA



## PARTE HARTZEAREN DATU OROKORRAK

Errolda	1206
Zenbatutako botoak	950
Zuriak	25
Baliogabeak	20
Abstentzioa	256

## HAUTETSIAK







## LARRAUN

### ALBIASU

#### ALBIASU AURRERA

1. JOSE JAVIER OQUIÑENA ARGAÑA

### ALDATZ

#### ALDAZKOAK

1. MARTIN JOSÉ BILDARRAZ VERGARA
2. JOSÉ JAVIER BARBERENA ECHARRI
3. JUAN JESÚS BILDARRAZ ARRARAS
4. ANA BELEN ARRARAS ZABALETA
5. JUAN IGNACIO LIZARRAGA LAZCANO

### ALLI

#### ALLIARRAK

1. EUKENI CELAYA ZUBIETA

### ARRUITZ

Ez dago hautagairik.

### ASTITZ

#### ASTIZKO TALDEA

1. JOSE MARIA AZPIROZ SATRUSTEGUI

### BARAIBAR

Ez dago hautagairik.

### ETXARRI

#### ARRIZURI

1. IMANOL JAKA NAVARRO
2. JOSÉ IGNACIO EGUZKITZA ETXEKONEA
3. ASIER BEGUIRISTAIN GOROSTARZU
4. AINARA MIQUEO CIGANDA
5. ENRIQUE CABALLERO ANDONEGUI

### GORRITI

#### GORRITIARRAK

1. ASIER URQUIZU LOPE
2. GARBIÑE BERNAL GOICOECHEA
3. UNAI PEREZ SAGASTIBELTZA
4. JULIO SOTO EZKURDIA

### UITZI

#### UITZIARRAK

1. SALVADOR GARCIA BELMONTE
2. LAIDA ZABALETA IRAIZOZ
3. ALBA PRADAS SCHIAFFINO
4. XABIER AZPIROZ BEUNZA
5. EIDER MARTIRENA IBARRA

### IRIBAS

Ez dago hautagairik

### MADOTZ

#### MADOZKO TALDEA

1. AITOR UNANUE AURRECOECHEA

### MUGIRO

Ez dago hautagairik.

### ODERITZ

#### ODERIZKO TALDEA

1. JOSEBA GARCIA ODERIZ
2. MIGUEL MARÍA BIDEGAIN
3. IKER SANZ DÍAZ

### AZPIROTZ-LEZAETA

#### AZPIROTZ-LEZAETAKO TALDEA

1. ENEKO ETXETXIKIA JUANBELTZ
2. ITZIAR EGIDAZU UGALDE
3. JUAN JOSE LASARTE ARTOLA
4. JUAN JESUS GOROSTIDI ESPINAL
5. MIGUEL ANGEL ZABALO AMEZQUETA

### ERRAZKIN

#### ERRAZKINDARRAK

1. IÑIGO OREJA SANZ
2. ENEKO SARALEGUI MARTINICORENA
3. IKERNE ILAREGUI MARTIARENA
4. MIREN EDURNE MARTINIKORENA
5. ION EZKURDIA AZCONA



## ARRAITZ

### AZKARATE

#### URRAITZ

1. UNAI OCHOA OYARBIDE
2. JUAN JOSÉ ALTUNA OTAMENDI
3. OLATZ ALTUNA GAZTELUMENDI
4. IRATI EZEIZA KARRERA
5. LOREA IRURZUN LÓPEZ

### GAINTZA

#### SONBELU

1. MIKEL BARBERIA PELLEJERO

### INTZA

Ez dago hautagairik.

### UZTEGI

Ez dago hautagairik.

### ARRIBE-ATALLU

#### AAB - ARRIBE ATALLU BERRITZEN

1. JOSÉ MARÍA AMUNDARAIN ARANALDE
2. AITOR ECEIZA BALDA
3. XABIER SARASA TOLOSA
4. JUAN GORRITI GARATE

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefona eta Faxe: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884


**German Lasarte**  
ARBEONDO  
**HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu



### ARRUIZKO SANTA LUZIARA ERROMERIAN

Maiatzaren 7an, igandearekin, Arruizko Santa Luziara egin zen erromeria. Hogeita hamar bat lagun bildu ziren eguerdiko mezatan, urtero legez, San Migelen Agerkundearen eguna ospatzera. Umeek loreak eskaini zizkieten Ama Birjinari eta, ondoren, gerturatu zirentzako aperitibo eskaini zuten herritarrek.



### 'TERA PIA' BAKARRIZKETA BETELUKO ELKARTEAN

Ekainaren 9an, 19:30ean, Lorena Arangoa clown irurtzundarrak *Tera Pia* bakarrizketa aurkeztuko du Beteluko Elkartean.

Garrantzi handiko emakume gehienak itzalpean utzi ditu historiak. Horietako batzuen azalean jarriko da Arangoa ikuskizunean zehar, eta talde terapia saio batean elkartuko ditu. 14 urtetik gorako ikusleentzat dago zuzenduta ikuskizuna.

### LEKUNBERRI KIROL ELKARTEAREN EGUNA

Ekainaren 18an, larunbatekin, Lekunberri Kirol Elkarteak bere eguna ospatuko du. Hainbat sekzioren erakustaldiak egingo dira eta mahai-ingurua egingo da eliteko kirolariek.

Aurreneko aldia da kirol taldeak bere eguna ospatzen duela eta giro polita espero dute antolatzaileek.





### ▶ BIHOTZ-BIRIKA BIZKORTZE IKASTAROA PRINTZAN

Maiatzaren 14an lehen sorospen ikastaroa egin zuten Printzan. Bost suhiltzailek azaldu zituzten horrelako egoeretan eman beharreko pausoak, simulakroak egin zituzten eta desfibriladorea erabiltzen irakatsi zieten bertaratu zirenei.

Horretaz gain, Printzan, hilean bitan janari bilketak egiten dituen Gogor Elkartasun Biltegiak hiru urte bete berri ditu. Pozik agertu dira "esperimentuak" emaniko uztarekin eta lanean jarraitu nahi dute, mundu justu baterantz urratsak emanez.



### ▶ SATORZULOREN 10.URTEURRENA BERTSO ARTEAN

Arribeko Satorzulo lokalak bere 10. urteurrena ospatu zuen maiatzaren 27an, larunbatarekin. 60 lagun inguru bildu ziren giro bikainean bazkaltzera eta Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariak izan zituzten otordua maneatzeko. Bazkalostean, platerak kartekin ordezkatu eta mus txapelketa egiteari ekin zioten.

### MAILOPEK ERRIGORAREN BI KUTXA ZOZKATU DITU

Aldizkaria sustengatzen duzueinei eskerrak emateko, Errigorako kutxa bana zozkatu ditu Mailopek bazkide zirenen eta bazkide berrien artean.

Irabazleak Lekunberriko Amaia  
Goikoetxea eta Beteluko Angel  
Rekalde izan dira. On egin!



# “Ez da diruarekin pagatzen zure inguruko bati zure produktu bat gustatzea, hura erostea eta harrotasunez eramatea”

*Amabitxi postuaren atzean ikusiko zuten askok azkenaldian Itsaso Aldai Landa artisaua (Oiartzun, 1996). Amets-harrapatzaileak egiten hasi zuen bidea, eta orain bitxiak ere egiten ditu, ahalik eta materialik naturalenak erabilia. Ekainaren 25ean izanen du hurrengo azoka, Lekunberrin, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren barruan.*

## **Itsaso Aldai bera da Amabitxi, edo Itsasoren parte bat baino ez da? Nondik heldu da?**

Amabitxi bada Itsaso Aldairen parte bat, eta egia da izena aukeratzeko garaian zalantza pila

bat izan nituela. Orduan, sorrerara jo nuen, eskulan hauek guziak egiten hasi nintzen garaira. Eta ikusi nuen amonarekin batera hasi nintzela, amonaren harien artean esperimentatzen. Horregatik,

banekien amona sartu behar nuela nolabait, izenean bertan ez bazen ere. *Amona* izena ez zitzaidan gustatzen, eta ez nuen nahi oso zuzena izaterik. Bitxiak ere egiten ditudanez, *amabitxi* gogoratu zitzaidan: nafarreraz *amona* esan nahi du, eta nik *amabitxi* (*amautxi*) ama pontekoari esaten diot, eta, kasu honetan, amona nire ama pontekoa zen; beraz: Amabitxi.

## **Bitxiak ere egiten dituzu gaur egun, baina hasieran amets-harrapatzaileak egiten zenituen gehienbat.**

2016 inguruan hasi nintzen esperimentatzen. Amonak hari pila bat zituen, gortinak zintzilikatzeko aro bat hartu nuen, eta, probatzen, ikusi nuen amets-harrapatzaile bat edo tarteko zerbait izan zitekeela. Hasieran ez neukan pentsatuta horretan hasiko nintzenik; neure buruarentzat egiten nuen zerbait zen, denbora-pasa bat, terapia modu bat. Gero, opari ezkutu bat egin behar nuen, eta amets-harrapatzaile bat egitea pentsatu nuen. Pixkanaka hobetuz joaten zara, edo gero eta txukunxeago ateratzen zaizu.

## **Ikasketak ere artera bideratu zenituen, ezta? Arte Batxilergoa egin zenuen, Donostian.**

Bai, betidanik sentitu dut artearekiko nolabaiteko lotura. Ikasketa horiek egin izana ere ez da kasualitatea. Txikitatik eduki dut arterako joera, edozerekin: 8 urterekin zapata kaxa bat hartu, eta itsasontzi pirata bat egin nuen, adibidez. Eskolan ere beti izan dut erraztasuna. DBH 4. maila



bukatzean, orientatzaileak saiatzen dira ikasketa jakin batzuetara bideratzen; zuri ematen dizute erabakitze aukera, baina, aldi berean, arrunt mugatua dago. Arte Batxilergoaren berri izan nuenean, argi nuen hori egin nahi nuela. Eta eskerrak horri eutsi nion.

### Zergatik hasi zinen bitxiak egiten? Eskaria zegoela ikusi zenuen?

Bitxiak askoz geroago etorri zen. Lehenbiziko postua 2016an jarri nuen, Laudioko Gazte Sortzaileen Azokan, eta hasiera hartan amets-harrapatzaileak bakarrik egiten nituen. Geroago, material asko sobratzen zitzaidala ikusten nuen, ondare asko geratzen zitzaizkidala amets-harrapatzaileak egin eta gero, eta postu bat jartzekoan zerbait gehiago eskaini behar nuela sentitzen nuen. Lepokoekin hasi nintzen, eta ikusi nuen amets-harrapatzaileak baino aisago saltzen zirela. Amets-harrapatzaile bat erosteko garaian, beharbada, zailxeagoa da bakoitzak argi izatea non jarri nahi duen. Gustura nabilen gauza diferenteak egiten, lepokoak edota belarritakoak, ikusten nuelako niretzako zerbait diferentea zela eta gustatzen zitzaidala, eta jendeari ere gustatzen zitzaiola. Azken urte hauetan ikusi dut belarritakoek askoz arrakasta handiagoa dutela, jendeari gustatzen zaizkiola, eta horrekin segitu dut.

### Amets-harrapatzaileen materialarekin esperimentatzen hasi zinen, baina orain ere ikusten da lotura hori egiten dituzun gauzetan: denek dute harria, harria, larrua...

Material berdintsua ibiltzen dut, dena pixka bat lotzeagatik. Belarritakoak egiten hasi nintzenean ere amets-harrapatzaileen



Oiartzungo Txerri Egunean Arg.: Labrit

### *“Ahalik eta koherenteena izaten saiatzen naiz, material gehienak naturalak edo birziklatuak izan daitezela”*

belarritakoak egiten hasi nintzen. Denak dauka lotura horrekin. Esperimentatu ahala, gauza diferenteak ateratzen zaizkizu, baina dena ildo beretik doa.

### Material naturalak dira ia denak, baita lumak ere.

Gaur egun zaila da den-dena naturala izatea, baina produktu bat eskaintzen edo saltzen hasten zarenean, ez duzu edozer gauza

eskaini nahi. Koherentiaren barrenean, ahalik eta koherenteena izaten saiatzen naiz. Saiatzen naiz material gehienak birziklatuak edo naturalak izan daitezen. Hala ez balitz, jatorrizko pentsaera hori galdu egingo luke.

### Nola lortzen dituzu lumak?

Hasi nintzenean, lumena zen nire zalantzarik handiena edo nire punturik ahulena. Ez nekien nondik eta nola lor nitzakeen luma naturalak. Gainera, kalekumea naiz, ez nuen baliabide handirik luma naturalak lortzeko, ez bazen mendira joan eta baten bat harrapatu. Baina material asko sortzeko adina ezin nuen lortu. Saltzen hasi nintzenean, etxeko loreontzi batean nuen goroldioa

erabili nuen lumak beharrean: goroldioa hartu, tiratan banatu, lehortu, ... eta luma baten forma ematen nion. Ahal nuen materialik naturalena bilatzen nuen. Baina goroldioa urte batzuk pasata desegin egiten da, eta erori. Gaur egun, ehizean ibiltzen diren batzuek ematen dizkirate lumak: oilagorren lumak, basahateen lumak, usoenak...

**Amets-harrapatzailearen arku bera ere naturala da: adaxkekin egiten dituzu.**

Alanbrearekin ere egiten ditut, hariarekin edo larruarekin forratuta, baina, behin adarrak mozten ari nintzela, probatzen hasi nintzen: adaxka batzuk hartu, forma eman, lehortzen utzi, eta ikusi nuen balio zuela. Beste behin, baliabide natural bat aurkitu nuen horretarako.

**Eta postuak berak ere hori erakusten du: harria, iratzea, egurra...**

Postua bera zaintzea ere garrantzitsua iruditzen zait, ez produktua bakarrik zaintzea. Produktuaren atzean dagoen pentsaera edo baloreak hor islatzen dira. Hala ere, hori ere landu egiten da, sormen prozesu bat da. Hasierako joera da produktua mahaiaren gainean jartzea. Gero pentsatzen duzu agian hobekiago ikusiko litzatekeela altuera pixka bat emanda. Kaxa bat jarrita igual... Azken azoketan errepikatu egin dut postua jartzeko modua, gustuko modu batean jartzea lortu baitut. Euskarri gehienak ere etxean eginak dira. Ze oso erraza da belarritakoak jartzeko euskarriak erostea, material pila bat dago esku-eskura, baina balioa ematen diot horiek ere nik neuk egiteari; erakustea lana hori ere artisaua dela, etxean egindako lan bat.

**Mendialdeko Azoka Ibiltarian zabilta azken hilabeteotan. Lekunberri izanen da hurrengo geltokia, ekainaren 25ean. Zer aukera ematen dizkizue azokak artisauei?**

Mendialdeko Azoka Ibiltariak aukera handia ematen du inguruko herri batzuetan postua jartzeko eta, hala,



Arg.: Labrit

jendeak gu eta gure produktuak gertutik ezagutzeko. Bestalde, nik beti defendatzen dut edo baloratzen dut aurrez aurreko salmenta. Aurrez aurrekoa da nire identitatearekin bat heldu dena, jakitea zeinek erosi dituen zure produktuak, zeinek eramango dituen etxera; tratu zuzena, momentukoa. Eta horren aldeko apustua egiten dut. Baina egia da geroz eta presio edo behar handiagoa sentitzen dela beste modu batean saltzeko; adibidez, jendeak esaten zidan hilabete batzuetara opari bat nahiko zuela. Horregatik hasi nintzen postuan txartelak jartzen, nire datuekin, jendeak nire kontaktua izan zezan.

**Orduan egin zenuen salto Internetera?**

Hasieran oso ezkorra nintzen. Ez nuen Interneten bidez edo Whatsappez saldu nahi. Baina, azkenean, proiektu honek izaera pixka bat hartu

*Postua bera zaintzea ere garrantzitsua iruditzen zait, produktuaren atzean dauden balioak hor islatzen baitira"*

duen honetan, amore eman dut: Instagramen kontu bat ireki dut. Iruditzen zait hori dela gaur egun gehien erabiltzen den sare soziala, baina hori kudeatzea ere lana da. Beste mundu bat da, baina oraingoz gustura nago izan duen harrerarekin, eta emaitza izaten ari da. Onartu behar dena da ezagutarazteko modurik egokiena edo emankorrena

sare sozialak direla, eta klik batekin aisago funtzionatzen dugula zuzeneko harreman baten bidez baino. Instagramen ez dago aurrez aurreko tratu hori.

### **Horregatik saiatu zara Amabixiren Instagramean hasierako izaera mantentzen?**

Nik ez dut asko entenditzen Instagramez, eta asko dut ikasteko funtzionamenduaz, baina argi onena da orrialde batek ere erakutsi behar duela zer den hau dena, klik batekin edo mezu elektronikoko baten bidez erosten duenak jakin dezala zeini ari den erosten eta zer ari den erosten. Jakin dezala ez dagoela enpresa bat horren guziaren atzean, baizik eta pertsona bat. Eta orrialdeak berak postuak ematen duen sentsazioa eman zezala nahi nuen, sentsazio xume bat, organiko bat. Aholku asko eman dizkidate ingurukoek, eta beste kontu batzuen ereduak bidali dizkidate, baina ez dut eredurik begiratu, zeren ereduak begiratzen baditut, nahi gabe ere, kutsatu egingo naiz, eta ez dut nahi. Izan dadila Amabixiren erakusleio bat bere horretan, inoren eredurik eduki gabe, nik nire modura egindako zerbait, eta hori islatu.

### **Amona ere aipatu zenuen lehen argitalpenean...**

Bestela ez luke zentzurik izango. Izenaren azalpenean, sorreran dago amona. Eta bada proiektu bat oraintxe bertan amonarekin lotura bat ematen didana, arlo pertsonalean. Omenaldi bat? Ez dakit omenaldi bat den, baina bai lotura bat.

### **Zuretzat amona izan zenari aitortza bat?**

Niretzat eta denentzat. Orokorrean ere bai. Nik uste, gizarte gisa, aitona-amonak gehiago baloratzen ikasi beharko genukeela, haiei gehiago aditzen, eta toki nagusiago bat ematen. Sare sozialetan zentratzen gara asko, sortzen diren eduki berrietan, gazteen bueltan ibiltzen diren gauza askotan, baina pertsona nagusietan ere badago edukia, eta ez makala. Haietatik ere, espero gabe, gauza eta erantzun mordoxka

*“Hasieran oso ezkorra nintzen, baina sare sozialak dira lanak ezagutarazteko modurik emankorrena”*

atera posible ditugu. Amona guziei da aitortza.

### **Intzara bizitzera etorri izana da azken urteotako aldaketa handi horietako bat?**

Kale gorritik mendira etorri nintzen, baserri girora. Eta nik berez betidanik eduki dut naturarekiko joera, eta orain, azkenean, etxean bertan dut hori. Nahi duten tokian bizi naiz, nahi duten bezala, eta horrek ere baliabide handiak ematen dizkit proiekturako, hemen egoteak ematen dituen energiaren gain.

### **Eta oraingo bizimodu horren barruan, zer harrera izan du Amabixik Araitzen?**

Araizko Zaporeak-ek antolatutako azokan pasatu nuen urduritasun handiena, Arriben jarri nuen lehenbiziko aldi hartan. Hemen etorkina naiz, jendeak bistaz ezagutzen nau, baina jendeak igual ez du ezagutzen nire beste parte hori, eta azokan postua jarri nuenean esango nuke askok harriduraz hartu zutela. “Hau ere egiten duzu?”, esaten zuten askok. Arrunt harrera ona izan nuen. Niretzat azoka hori berezietariko izan zen, proiektua ezagutarazteaz gain, jendeak ni ezagutzeko modu polit bat izan zelako. Ez da diruarekin pagatzen zure inguruko pertsona bati zure produktu bat gustatzea, erostea eta harrotasunez eramatea.

### **Eskaerak ere egin zizkizuten gainera, ezta? Eta egiten dizkizute oraindik. Eskaera pertsonalatuak egiteko aukera eskaintzen duzu.**

Oiartzundik Arribera nabaritu nuen aldaketarik handiena hori izan zen. Hemen inguruan, baten bati belarritako bat gustatu bazaio eta



Arg.: Itsaso Aldai Landa

*“Gazteok gauza berriein itsutzen gara, baina pertsona nagusietan dago ikasketarik handiena”*

nik oraindik ez badut halakorik eginda, esaten diot egingo diodala eta elkar ikustean emango diodala. Gertutasun hori ere eman dit Araitzek eskaerei dagokienez, eta eskaera bidez lan egiteko bide hori ireki dit. Gainera, nahiago dut eskaera pertsonalekin lan egin. Hobeki funtzionatzen dut jakinda zeinentzako izango den egiten ari naizena, gehiago gozatzen dut eskulana.

### **Hasieran esan duzu Itsasoren parte bat dela Amabixi. Baina Amabixik berak ere eman dio zerbait Itsasori?**

Bai, eta Amabixik berak lagundu nau. Azkenean, pertsona gisa aldatuz (posible bada hobetuz) joaten gara urtez urte, batez ere, gaztetako urte hauek dira justu aldaketarik handienak jasaten direnak, baina Amabixi izan da gaur arte mantendu duten eta mantendu nauen haritxo bat, ni neu, inor gabe, Itsaso, haritxo hori.

## Egunsentiari bidea erakusten

*Urtetan elkarrekin korrika egin ostean, Goiztiarrak Mendi Lasterkari Taldea sortu dute eskualdeko hainbat kirolarik. Larunbatero, oilarrak oraindik begiak zabaldu ez dituela, mendian korrika egitera ateratzen dira giro onean eta gure bazterrak ezagutzeko gogoz. Datozen erronken artean, hemen lasterketa bat antolatzea.*

Goizeko zazpiak dira eta, izaretatik askatuta, ero bat dabil mendian korrika frontala kopetan jarririk. Eta, bat-batean, gauza bera egiten ari den beste zoro batekin egiten du topo. Nork bere bideari jarraitzen dio. Aste batzuetara, egunsentian zapatilak gastatzen dabilzan ero biak berriz ere gurutzatzen dira. Aurrerago, lasterketa batean ikusten dute elkar, eta pentsatzen hasten dira zergatik ez ote diren, tarteka bada ere, elkarrekin korrika egitera aterako.

*“Taldean inplikatzeko maila askotarikoak daude; ez du konpromiso jakinik eskatzen”*

Alfontso Etxarri

Hitzordu batek beste bat dakar eta bidean zoro gehiago biltzen hasiak zaizkiela, azkenean, kuadrilla txiki bat osatuz doa erritual goiztiar horren inguruan.

Horrelako istorio batetik dator Goiztiarrak Mendi Lasterkari Taldea: mendian korrika egiteko zaletasuna zuten ezezagunak zirenen batuketatik. 2022. urtea abiatu berrian, larunbatero biltzen ziren korrikalari goiztiarrei bururatu

16



Arg.: Goiztiarrak MLT



***“Batzuek ikusten gaituzte eta pentsatzen dute ezingo diotela gure erritmoari eutsi, baina guk ez dugu inor atzean uzten”***

Imanol Estanga, “Zulota”

zitzaien, agian, forma eman beharko lioketela esku artean zuten horri; hau da, akaso klub egitura hartu beharko luketela.

Horietako batzuk bazebiltzan bestelako elkartetan eta baziren ekarriko zien lanaren jakitun, baina, Alfontso Etxarri arruiztarrak adierazi duen moduan, “argi zegoen kluba izanda gauza gehiago egin ahal zirela; bai kirola ezagutarazteko, bai jendea erakartzeko”. Esan eta, urte erdira, egin; goiz jaikitzea baino apur bat gehiago kostatu baitzitzaien lasterkariei taldea sortzea. “Sei hilabete eman genituen egin behar genuela esanez”, gogoratu du Iñigo Lasarte lekunberriarrak, barrez.

41 lagunek osatzen dute, gaur egun, Goiztiarrak taldea. Ez dira guztiak lasterkariak eta ez dute maila berean zertan engaiatu. “Taldean inplikatzeko maila askotarikoak daude; ez du konpromiso jakinik eskatzen”, zehaztu du Alfontso.

Apirilaren 28an egin zuten taldearen aurkezpena eta, bide batez, hamar kilometroko buelta egin zuten gustura. Hainbat lekutako taldekideak dituzte eta ez dira inguru hurbilera mugatzen; Leitzatik, Irurtzundik eta Basaburutik heldu zaizkie bazkideak. “Ez genuen gurera mugatu nahi; irekia nahi genuen, eta, egia da, inguruan ez dagoela beste mendi lasterketari talderik”, azaldu du Alfontso.

Klub egiturak, gainera, AyerdiOreja fisioterapiaren babesletza izateko aukera eman die, zeinari esker arropa erosi ahal izan duten. “Hasiera



Arg.: Goiztiarrak MLT



Arg.: Goiztiarrak MLT

***“Hauekin hasi nintzenetik hamaika zoko ezagutu ditut”***

Iñigo Lasarte

batean, biltzen ginen eta Pancho Villaren armada genirudien, nor bere kolorea jantzita, eta orain hamabost bat lagun laranja proba berean ikustea polita da”, adierazi du Iñigok haututako koloreari erreferentzia eginez.

Dozena bat goiztiarrek eman dute izena Euskal Herria Mendi Erronkarako, baina proba ertain eta txikietan ere badabiltza. Azpimarratu



Arg.: Goiztiarrak MLT

18

beharreko kontua, askok eskarmentu handia izanagatik ere, argi utzi nahi baitute hurbildu nahi duen ororentzat dagoela tokia. "Batzuek ikusten gaituzte eta pentsatzen dute ezingo diotela gure erritmoari eutsi, baina guk ez dugu inor atzean uzten", esan du Zulotak. "Daramagun denbora guztian ez dugu inor mendian utzi", gaineratu du Alfonsok, barre artean. Zehaztu dute nor bere mailan eta erritmoan aritzen dela, eta arinago doazenak zain geratzen edo laguntzera jaisten

**"Leku pribilegiatuan bizi gara mendi lasterketarako"**

Alfonsok Etxarri

zaizkiela atzerago dabiltzanei. Adin askotako eta kirol maila oso diferentetako kideak elkarrekin aritzen dira, baina gustura guztiak; disfrutatzea dute helburu.

Taldean ateratzearen abantailak argi dituzte: elkarrengandik ikas daiteke, bakarrik ibiltzea baino askoz errazagoa eta motibagarriagoa da... Baina badira kirolaz harago doazen argudioak ere. Alfonsok berak dioen bezala, "leku pribilegiatuan bizi gara mendi lasterketarako", eta zenbakitzak dira egin daitezkeen bideak eta ezagutu ahal diren bazterrak. Horretaz ere mintzatu da Iñigo: "Hasi nintzenean bide berdintsuak hartzen nituen beti, baina hauekin hasi nintzenetik hamaika zoko ezagutu ditut". Oso giro ona dago eta igartzen zaie.

Mendi lasterketa sustatzeko asmoz, probatu nahi duen jendeari gonbita egin nahi diote posta elektronira ([goiztiarrakmlt@gmail.com](mailto:goiztiarrakmlt@gmail.com)) edo sare sozialen bitartez idatz diezaieten; Instagramen zein Facebooken erraz topa daitezke Goiztiarrak. Baina, edonola ere, ez dira taldea sortu eta gizendu izanarekin konformatzen, eta gorago nahi dute korrika jarraitu. Hurrengo helburua: hemen lasterketa bat antolatzea. Badakite ez dela bide samurra izango, baina, goizago edo beranduago, egingo dute.



**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.  
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88    [maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**



**urrutia**  
*enea*

etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

III ORGANICOPA / ORGANI-KOPA 2023

RECOGE  
EL GUANTE,  
SEPARA  
LA ORGÁNICA



BATU ZAITEZ  
ORGANIKOAREN  
ERRONKARA

DEL 2 MAYO AL 1 JULIO  
MAIATZAREN 2TIK UZTAILAREN 1ERA



Illustration by Pablo Marquez from Ouchi

Compite con los pueblos de tu Mancomunidad por recoger la mayor cantidad de residuos orgánicos y gana mobiliario de material reciclado para tu localidad. #separalaorgánica

Lehiatu zure Mankomunitateko herriekin hondakin organiko gehien biltzeko eta irabazi birziklatutako materialarekin egindako altzariak zure herriarentzat. #separalaorganica



## Vicente, Larrañaga eta Txikia IV.a finalerako sailkatu ziren Lekunberrin

Maiatzaren 21ean aizkolariak eta harri-jasotzaileak izan genituen Lekunberriko Jayan Jai pilotalekuan. Finalerdiak ziren jokoan eta Aizkolarien Banakako Txapelketarako Vicente, Larrañaga eta Txikia IV.a dira ekainaren 4an Azpeitian jokatzekoa den finalera joango direnak; Otaño, Ezpeleta eta Suharri Rodriguez bidean utzita. Harri-jasotzaileei dagokienez, finalera pasatzerik ez zuten Martin-Martinez eta Errekondo-Esnaola bikoteak aritu ziren emakumezkoetan eta sailkatu ezin izan ziren Guzta eta Goenatxo III.a gizonetzkoetan. Beraz, harri-jasotzean, Zelai III.a-Zumeta eta Orbe-Osa bikoteak lehiatuko dira batetik eta Azpiazu, "Urra" eta Olaizola bestetik Izarratz pilotalekuan.



Argazkiak: Labrit



## Herri Arteko Txapelketa jokatzten ari da

Maiatzaren 19an Herri Arteko Txapelketako partidak izan ziren Betelun eta Lekunberrin. Araitz-Beteluko txikiek leitzarren kontra jokatu zuten eta Larraungoek barañaindarren aurka. Handien kasuan, Araitz-Beteluren eta larraundarren artekoak ziren partidak. Araitz-Beteluko txikiek eta handiek etxean jokatu zutelarik, oso giro onean joan zen arratsaldea, eta *luncha* izan zuten bukatutakoan.



Arg: Araxes Pilota Elkartea



Arg: Larraun Pilota Elkartea

## Beti Kozkor hirugarren mailara igo da

Beti Kozkorrek hirugarren mailara igotzea lortu zuen bi partidaren faltan. Maiatzaren 13an, lekunberriarrek 4-2 garaitu zuten Peña Azagresa, eta hirugarren zebilen Bidezarrari distantzia nahikoa aterata, lagunartekoak izango balira bezala jokatu ahal izan ditu azken bi jardunaldiak. Datorren denboraldian, beraz, maila handiagoko taldeen kontra ikusi ahal izango ditugu beltzak.



Argazkia: J.A. Garaikoetxea

## Sevilla gorriz tindatzen

Osasunak Sevillan jokatu zuen Errege Kopako finala eta Araizko, Beteluko, Larraungo eta Lekunberriko lagun batzuk ere izan zituen harmailetan eta kaleetan animatzen.



Arg.: Manex Torrado



Arg.: Xabier Etxarri



Arg.: Itsaso Aitor Goikoetxea

## Neure burua maitatzen ikasten

Umetan ikasi nuen zintzoa behar nuela izan eta horretarako besteentzako gauza onak egin behar nituela, alegia, begirunezko harremanak izan eta besteak zaindu zein lagundu. Gaztetatik egin beharra neukan hori guztia. Hasi anaia, arreba zein gurasoekin baita eskolako kideekin zein beste edozein pertsonarekin ere. Gauzak horrela, sei urte nituela, egin nuen Lehen Jaunartzea eta urtebete geroago Berrespena. Astero-astero, larunbatero, Aitortza egiten nuen hurrengo egunean meza entzun eta Jaunartzea egiteko. Aitortza egitean, behin eta berriz aipatzen nituen bekatu berberak eta beti besteei egindakoak izaten ziren. Nire anaia eta arrebak jo, gezur txikiak esan eta ezer gutxi gehiago. Lanak hartzen nituen astean zehar bekatuak izan zitezkeenak aintzat hartzeko. Ikasi nuen, horrela, elizan zein etxean eta eskolan neure burua ahazten. Nire gurasoek ere erakutsi zidaten haien burua ahazten zutela, garrantzitsuak zirela besteak. Neure burua bigarren mailan jarrita, zintzoa nintzen. Urtetako lanaren ondoren, aurkitu nuen, poliki-poliki, ene buruaren ukazioak min handiak ekarri dizkidala bizitzan zehar eta hori ez dela neure burua maite izatea, justu kontrakoa. Ordutik ikasi dut neure burua lehenetsi behar dudala maitasunez. Besteekiko elkartasuna beharrezkoa da baina neure burua kaltetu gabe.



## AITORTZA LEHEN SEKTOREAN HASI DIREN LARRAUNDARREI

Latxa arrazako aharien bigarren enkante nazionala egin zuten Arruitzen maiatzaren 14an, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren bigarren geldialdian. Iaz egin zuten aurrenekoz, Gorritin, eta, aurten ere esnearen produkzioarako balio handia zuten ahariak ekarri zituzten arren, enkantean jarri zituzten 24 aharietatik 15 baino ez ziren saldu: gehienak, 18, muturgoiriak ziren; gainerako zortziak, berriz, muturbeltzak. Urte bat baino gazteagoak ziren ahariak 220 eurotik hasita jarri zituzten enkantean, eta zaharragoak, berriz, 300 eurotik hasita. Enkanteaz gainera, artisauen produktuak ikusteko eta erosteko aukera ere izan zen.

Ez da kasualitatea jende gutxiagok parte hartu izana enkantean; izan ere, garai zaila da lehen sektorearentzat. Langile horien esfortzua goraiatzeko, Larraungo Udalak omenaldi txiki bat egin zien azken urteotan lehen sektorean lanean hasi diren larraundar batzuei: Itziar Egidazu okina —ogi ekologikoa egiten du, Lezaetan—, Montse Armendariz —Madotzen sagardoa egiten hasi da, haren bikotekidearekin batera— eta Ibai Martirena Uitziko artzaina omendu zituzten.

Ekainaren 4an Goizuetan izanen da azoka ibiltaria, Txundar Egunean, eta ekainaren 25ean, berriz Lekunberri.



**ASEGURU  
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna  
babesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL  
BETELU**

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta  
pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 · 663 97 67 09



**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

**Etkez etxe  
banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**



**CONECTA NAVARRA RURAL**  
Local, sostenible y digital



**LANDA NAFARROA LOTU**  
Tokikoa, Jasangarria eta digitala

Proyecto de cooperación entre los Grupos de Acción Local de Navarra para afrontar el reto demográfico impulsando la conectividad de los territorios:

- **CONECTIVIDAD DIGITAL** entre la población, las empresas y la administración
- **CONECTIVIDAD FÍSICA**, intercambiando soluciones de movilidad sostenible
- **CONECTIVIDAD** entre la oferta y la demanda del PRODUCTO LOCAL

ACCIONES GRATUITAS

**CONÉCTATE**

Más información en:  
[conectanavarrarural.org](http://conectanavarrarural.org)

TALLERES  
EVENTOS  
CURSOS  
JORNADAS  
CHARLAS  
ESCAPE ROOM



UNIÓN EUROPEA  
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



cederna garalur

ZONA MEDIA  
GRUPO DE ACCIÓN LOCAL

Teder

consorcio EDER

ARAITZ ETA LARRAUN

## Maite Aizpurua idazleak egonaldia egingo du Araitzen eta Larraunen

Udalbiltzaren "Geuretik sortuak" bekari esker, Maite Aizpurua Olaiola antzerkigile eta idazle zumaiarrak egonaldi bana egingo du Larraunen eta Araitzen "Esnatze basa" izeneko proiektua garatzen.

Esperimentazioan sakondu nahi duen idazleak bizipenak eta sormena uztartu nahi ditu estilo desberdinak biltzen dituzten narrazioetan. Herrietan disidentzia sexuala bizitzeko modutik abiatuta, prozesuak iradokitzen dionari ez dio aterik ixten sortzaileak. Beraz, aurreikusitako bidaia hastera doa Aizpurua.

Eta bidaia horretan herritarrek nahi dituzten bidaide. Sormen idazketa tailerrak antolatuko ditu Udalekin (ekainaren 15ean Larraunen eta uztailaren 5ean Araitzen) eta tailerretatik ateratzen diren elementuak txertatu nahi ditu proiektuan; biztanleei eman eta biztanleengandik edan.



Argazkia: Maite Aizpurua

LEKUNBERRI

24

## Lore eta landare azoka Lekunberrin

Maiatzaren 21ean, igandearekin, lore eta landare azoka egin zen Lekunberrin. Txikiendako tailerrak ere egin ziren eta menestra jatera gonbidatu zen bazkalorduan.

Gainera, ekainaren 24an emango diren balkoi ederrenen lehiaketari eman zitzaion hasiera. Hiru kategoriatan: pisuak, adosatuek eta etxeak.



Argazkia: Labrit



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Orduategia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## Izar artean

Ez dut oso argi nola idatzi hau, zuen eskuetara iristerako, nik daukadana baino informazio zabalagoa izango duzue eta salto egingo zenuten denboran aurrera. Ni, ordea, hauteskunde kanpaina bizi-bizian nago oraintxe bertan eta bonbardaketa hutsa da une oro. Baina goazen, eta ikusiko dugun zer gertatzen den.

(Parentesia) Hasteko, zorionak sortu berri diren udaletxe guztiei, edo sortuko direnei oraindik ere tratuan bazabiltzate. (Parentesia itxi)

Maiatza bukatzeaz dago, goizero irratian albistegia, behin eta berriro kontu bera, hau esaten dute, hura esan zuten, gezurra, hipokrisia, agindu zuten eta ez dute betetzen, terroristak dira, iraganean bizi dira, antidemokratikoak... eta gehien gustatzen zaidana, zergak jaitsiko ditugu... behin eta berriro (nire kontuak ez dio gauza bera).

Denak izaki bera direla pentsatzen hasi naiz, irudimen asko dudala esan izan didate. Agian hala da eta idatzi honek gero eta logika gutxiago dauka. Baina hor doa nire teoria... Azala eta ahotsa aldatzen duten estralurtarrak dira denak, beste zibilizazio batetik datoz, oporretan, denbora pasan, bidaia egin aurretik, gidoi ezberdinak banatzen dizkiete baina ez dira oso askotarikoak eta azkenerako errepikatu eta nahastu egiten dira. Hona iristean behin eta berriro errepikatu behar dute hitzaldia, pozoi moduan, gero eta ozenago eta handikeria gehiagorekin esaten badute, puntuak irabazten dituzte eta oporraldia luzeagoa da, hotelaren izar kopuruak ere gora egin bitartean eta horrela aspertzen diren arte.

Ipuin bat bakarrik da, teoria bat, baina egia izango balitz, zirku hau guztia logikoagoa izango litzateke.



## Enrike Solinis saritua

Azkaraten bizi den Enrike Solinis bizkaitarra saritu du Euskal Herriko Musika Bulegoak.

Merina Gris, Su ta Gar, Neomak, MICE, Ines Osinaga, Teresa Catalán eta Elena Setién izan ziren Errenteriako Lekuona Fabrikan, maiatzaren 16an, ospatu zen edizio honetakoa ekitaldian.

Epaimahaiak Solinisen teknika goraiatu eta gitarrari onenen artean kokatu zuen azkaratekoari. Bere ibilbidean egiten ari den ikerlana eta kulturaren berreskuratzea ere azpimarratu dituzte adituek.



Argazkia: Iñaki Andres

## Urko Gartzia sailkatu da Nafarroako Bertso Txapelketarako

Maiatzaren 26an, 50 bat lagun bildu ziren Larraungo Gabari gunean irekian Nafarroako Bertso Txapelketarako aurrekanporaketaz gozatzerako.

Beñat Astiz, Etxahun Azkarraga, Fernando Ziganda, Mintxo Astiz, Peio Ardaiz eta Urko Gartzia izan ziren taula gainean, eta azken honek lortu zuen pasea.





## Noski ta naski

*Esan ta izan bezalaxe, txanpon beraan bi aldeak izan dattetze Noski ta Naski re. Persona batzuk beti noski izaten dee, beti bai. Launtza eskatutakoan, zerbatte in behar denean, faoren bat eskatutakon, "hoixe baietz" o "bai, noski". Seguridadea ematen due. Beste'atzuk, berriz, beti ankarrean, beti duden: "hala izangon, naski; hoi beste baten ardure izangon, naski; kalean ikusi omen zuen, ta bai, etorrie don naski"... ezin gauzek garbi esan! Beti duden. Noski, argie ta naski, itzala.*

*Ditsozoko hauteskundeak deela ta azken hiletean re askotan aituu duu noski hitze bintzet. Dena, ilusio, asmo on, erronka ta konpromiso saldu digue noski, baño hemendik lau urtea berrize kanta beretsuk aittuko dittuu, naski.*

*Sorioneku euskal hiztunok. Harro goratzeu metalezko eskue paparrean, belarritatik zintzillik o etxe atarin euzkilorea eoten zen iltzean jarrita. Mingañean totela geo ta haundigoa, ordea, ta belarritaa bestelako kuku kantak. Denok omen gaude arduratuta gure hizkuntze zaintzeakin ta mantentzeakin, noski. Baño gaur gaurkoz kezka eta konpromiso, gure umeak oaindik ezin due euskeazko marrazki bizidunik o tajuzko edukiik ikusi telebistan ETB3en boton bakarrai emanda. Mandatari gaiztoan pelikula hau aspaldikoa da, naski!*

*Kontziliazioa, herri txikitako mugikortasune, landa eremun garapena, ekintzailtza, kulturgintza, zahartzaro lagunkoie, zaintza lanak ta zaintzaileen lanan duintasune; berdintasun politikak, genero erasoan kontrako protokoloa, kalitatezko hezkuntza... Denak ee, erronka latzak dee noski, askotan arinkeri beldurgarriz jartzen dittuunak ahotan ta paparrean sorioneSkue bezalaxe. Egie da ez deela eun batetik bestea lantzen deen gauzek, len ee aittuk dittuu hoik denak naski. Pausoz pauso ta poliki-poliki landu beharreko konpromisoak dee noski, baino zertan ai gean ahaztu bare. Boondateak re pixu puskoak bado herrigintzan noski, ta estimatuko giñuke gure botoakin eosi berri dittuun noski sendo hoik denak, naski ahul batzuk bihurtuko ez balee.*

*Esanak esan, herrigintzan, herritarren ordezkari lanetan aitzeko prest daun horri, bejondeiola. Lan nekoso ta askotan esker txarrekoa izatea. Gauze on asko izango ditto, noski, baño bestaldeko burukomiñek gehio izango dee naski, ta animo!*

Hurrengoa:

Guratz Azpiroz (Uitzi)



**Asier Mikeo**  
(Lekunberri)

# maite ditut maite gure bazterrak

## Malloetako lehenengo sei tontorren buelta

**Ibilbidea:** zirkularra  
**Distantzia:** 10km  
**Desnibela:** 650m  
**Zailtasuna:** erraza


### Zergatik aukeratu dut?

Niri gustatzen zaidana mendira joaten naizenean lasterka edota oinez, tontorrek igotzea da. Ibilbide honetan Malloetako sei tontor igotzeko aukera izanen duzu: Arriolatz, Subezelaigañe, Putremalkorra, Uarrain, Alborta eta Ttutturre.

### Bidea:

- 1 Autoz Baraibarreko antenetara igo eta Malloetarako norantzan dagoen pista hartuko dugu. Pistatik atera gabe zuhaitzengatik babestuta jarraituko dugu ataka bilatu arte.
- 2 Ataka zeharkatu ondoren goraka egingo dugu eskuinera biratuz bi borda ikusi arte. Bertan borden ezker aldetik egin beharko dugu aldapa igoz.
- 3 Aldapa igo ondoren, zuzen jarraituta metro batzuk, gure tontorrek ikusten hasiko gara, lehenengoa Arriolatz eskuinera eginda. Beti Balerdirako norantza hartuko dugu hurrengo tontorrek egiteko, ez dago bide ofizialik, nahi diren tokitik igo daitezke. Nik normalean ez dut inoiz bide berbera hartzen, horregatik ez naiz aspertzen mendi hauek igotzeaz.
- 4 Azken tontorra egin ondoren, Ttutturre, bere bide normaletik itzuliko gara Baraibarko antenatara, atakatik berriz pasata, ibilbide zirkularra burutuz.

27



# Inauguratu dira Pagalletako galtzinlabean egindako lanak

2020an Iturraskarri gizarte proiektuak Pagalletako galtzinlabea topatu zuen, garbiketa lanak egiten zebilela. Sasien artean mendeak egin ostean, karobiak 25 auzolan behar izan ditu duin erakusteko. Ondarek gidatutako eta Aranzadik aholkatutako lanetan hainbat boluntario ibili dira, eta horren emaitza inauguratu da maiatzaren 21ean.

Maiatzaren 21ean, goizeko hamaikak aldera, adarraren hotsak eman zion ekitaldiari hasiera. Txalapartariak makilei eragin zieten eta, horiek oholen gainean utzitakoan, irten zen bildutakoen artean Juan Mari Irastortza hamaseiko berdinean galtzinlabea aurkeztera.

Jarraian, Ondare Kultur Taldeko Javier Irigoienek hartu zuen mikrofono itxurako lekukoa. Kontatu zuen ezustean, garbiketa lanak egiten ari zela, topatu zuela Iturraskarri gizarte proiektuak karobia 2020an. Ondarek aurkikuntza atontzeko laguntza eskatu zion Lekunberriko Udalari eta, horrek, 12.000 euro esleitu zizkion lanetarako. 2022ko uztailean hasi eta, 25 auzolan geroago, dotore geratu da galtzinlabea.

Erdi Aroan eta Erdi Aro ostean aditua den Aranzadiko Alfredo Morazak hartu zuen hitza gero. Memoria berreskuratzea "gure esku" dela gogoratu zuen; sasi artean utzi ahal zela karobia, iraganean galdurik eta



herriarren kontzientziatik at, baina herriak berreskuratu duela eta "gure arbasoen lana omentzeko" modu bat izan dela. Horren harira, Lekunberriko Udalari, Ondareri eta lanean aritu diren lagunei eskerrak emateko baliatu zuen unea arkeologo eta historialari hernaniarrak. Lekunberriko garrantzi handiko elementua omen zen galtzinlabea,

baserria eta karobia elkarrekin baitzihoazen erabat. XVII. mendean, Morazak kontatu zuenez, beharrak asetzeko, uzta bi behar zituen familia batek: bata "nagusiarri" eman behar zitzaiona; eta, bestea, etxekoendako biltzen zena. Artoa Europara iritsi arte ezin izan zen bigarren uztarik eduki eta, aurretik, garia beste baten etxera joaten zelarik, gaztainekin egiten





zen etxekeondako ogia. "Probatu duzue inoiz gaztain-ogia?", galdetu zuen Morazak horren zapore eskasa iradoki aurretik. "Artoa heldu zen, eta eskerrak!". Zereal "berria" ereiteko, baina, ez omen genuen lurrik egokiena. 1705eko dokumentu batek dioenez, Lekunberriko "lur hotza" karez "berotu" beharra zegoen. Hori izan omen zen karobien hedatzearen arrazoia. Jakina denez, aspalditik, kareak bazituen beste erabilera batzuk ere: argamasa prestatzeko, hormak zuritzeko, hildakoek kutsa zitzaketen gaixotasunei aurre egiteko... Baina ongarri bezala zuen bertutea izan zen, itxuraz, garai hartako "boom-a" eragin zuena.

Pagalletako galtzinlabea "zahar-karobia" da; tradizionala. Nahiko soila da, ez oso handia eta harlangaitz-hormaz eraikia da. Bi kontrahormek eusten diote legorra deritzon estalkiari eta behean dagoen atakatik elikatzen da galtzinlabea. Iraganeko elementu garrantzitsu hau ezagutzera datozenek, karobiarekin batera, Hijos de Alejandro Tofé errioxarrek eginiko eskultura eta

Rafa Etxarrik idatziriko eta Juan Luis Landak ilustratuko informazio panela topatuko dituzte. Hala irudikatu ahalko dute zertan zetzan lan hori, zer-nolako garrantzia izan zuen eta, finean, zein izan zen hain urrun geratzen ez diren belaunaldi horien bizimodua.



*Begira zeinen dotore  
Paalleta galtzinlabea  
Lehen sasi pila baten  
azpian zegoen gordea  
Halako baten Ondarek  
aurkitu zuen, ordea,  
eta martxan jarri zuen  
berritzeko lan taldea.*

*Nola auzolana baiten  
Ondareren balorea,  
laguntza eskatu zuen;  
aktibatu zen sarea.  
Eskertu nahi nuke, hontan,  
lagundu duen jendea:  
zuei esker bizi baita  
herriaren ondarea*

Doinua: Habanera

**CONSTRUCCIONES**  
ERAIKUNTZAK  
**CONSTRUCCIONES**  
**URANGA/SAIGÓS, S.L.**

**TEILATUAK**  
**FATXADAK**  
**ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA**

**665 708 683**  
Lekunberri

**ERREABILITAZIOAK**  
**IGELTSERITZA**  
**FATXADAK**  
**TEILATUAK**

**Construcciones**  
**Gañarbe**

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri  
📞 616 457 540  
✉ construccionesganarbe@gmail.com  
📞 636 827 846

## LAN ESKAINTZAK



30

### Gidaria

Lekunberri-Larraungo Eguneko Zentroak gidaria behar du astelehenetik ostiralera, astean 35 orduko lanaldian (8:00-11:00 eta 13:00-17:00).

Ezinbestekoa:

- ▶ B gidabaimena.
- ▶ Euskara maila: maila altua ulertzeko eta hitz egiteko.
- ▶ Eskola-graduatuak.

Interesatuta bazaude, CVa ekainaren 15a baino lehen bidali [cdlekunberrilarraun@gmail.com](mailto:cdlekunberrilarraun@gmail.com) helbidera.

### Sukaldaria

Lekunberri-Larraungo Eguneko Zentroak sukaldaria behar du astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 17:00etara.

Ezinbestekoa:

- ▶ Sukaldari gisa esperientzia duela frogatzea.
- ▶ Talde-lanetan aritzeko gaitasuna eta borondatea izatea.
- ▶ Erabakiak hartzeko eta planifikatzeko ahalmena izatea.
- ▶ Euskara: maila altua ulertzeko eta hitz egiteko.
- ▶ Elikagaien maneiatzaile karneta.

Interesatuta bazaude, CVa ekainaren 15a baino lehen bidali [cdlekunberrilarraun@gmail.com](mailto:cdlekunberrilarraun@gmail.com) helbidera.

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**   
**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KOMPONTEZA  
**634 551 743**  
[infoaralar@gmail.com](mailto:infoaralar@gmail.com)

Errotaldea 19,  
Lekunberri  
  
**MARTIÑO TXIKI**  
PERKUSIO ESKOLA  
[www.martillotxiki.com](http://www.martillotxiki.com)  
679 938 016

**BIDEGOXO** JATETXEA  
Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak  
Usabal Kiroldetgia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**  
**URZUBI S.A.**  
Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20  
Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)

## ▶ AGENDA

### EKAINA

9- 18:30ean dokumentala:  
Aukerak giltzapean. Printzan.

9- Tera Pia ikuskizuna, 19:30ean Beteluko Elkartean.

11- XVII. Aralarko martxa.

15- Sormenezko idazketa tailerra, 18:30ean. Larraun.

18- Lekunberri KEren eguna.

23- 21:00etan: 4. urteurren afaria. Printzan.

25- Azoka Ibiltaria. Lekunberri

### LARRAUNGO EGUNA

#### Ekainak 16 ostirala Azpirotzen

18:00 Mus txapelketa  
Sariak: paletilla, gazta eta ardo botilak  
21:00 Afari autogestionatua

#### Ekainak 17 larunbata Aldatzen

**Goizean** txistulariak herrietatik  
11:30 Pilota partidak  
12:30 Tirikitraukiren dantza emanaldia  
13:15 Musika Eskolako animazioa  
14:00 Herri bazkaria bertsolariekin  
Aroa Arrizubieta eta Xabat Illarregi  
\*txartelak AEK eta Mitxausean eskuragarri  
ekainaren 12ra arte  
16:30 Umeentzako eskulanak  
17:30 Hodei magoa Txokotxikin  
17:30 Gazte + helduentzako jolasak  
19:00 DJ Oixani

### LEKUNBERRIKO

#### SAN JOAN JAIAK

##### Ekainak 23, ostirala


20:30 Suak eta txistorrada  
00:00 La TopaderaA.

##### Ekainak 24, larunbata

9:00 Dianak.  
11:00 Meza.  
12:00 Erraldoiak.  
14:00 Bazkari herrikoa (paella) + Bingo.  
14:00 Jubilatuen bazkaria  
18:30 Antzerkia (Vaya Semanita)  
18:00 Karaokea Gizarte-etxean  
0:00 DJak (Mikel Sevillano)

##### Ekainak 25, igandea

9:00 Dianak  
11:00 Meza.  
12:00 Erroldatu berriei zapi ematea  
12:30 Janari dastaketa interkulturala.  
Pilota partidak.



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com

**aitz  
berri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologoa  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpai-  
netan  
Mikroblading bekainetan

# BETELUKO SAN PEDRO

## JAIAK 2023



### Ekainak 28, asteazkena

- 17:00 Txupinazoa eta merienda
- 17:30 Dortsalen banaketa
- 18:00 III. Kronoigoera
- 19:00 Gizonezkoen frontenis finala
- 21:00 Herri afaria. Ondoren, bingoa
- 24:30 Trikidantz. Atsedendian, kulero eta galtzontzillo lasterketa
- 4:00 Baratxuri zopa

### Ekainak 29, San Pedro eguna

- 7:00 Auroroak
- 8:00 Diana
- 12:30 Meza Nagusia. Ondoren, gazta eta ardoa banatuko dira
- 13:15 Beteluar berriei ongietorria
- 13:30 Pilota goxua finala
- 17:00 Puzgarriak eskolako parkean
- 18:00 Kantujira plazatik hasita
- 19:30 Bailarako umeak dantzan
- 20:00 Beteluko ingurutxoak
- 20:30 Herri poteoa kantuz kantu. Bitartean, gazta zaharra banatuko da. Ondoren, ogitartekoak banatuko dira txosnan
- 22:00 Sorginkeriaren jolasa: hasiera
- 24:00 Millan eta Rivera DJak

### Ekainak 30, ostirala

- 11:00 Umeen futbol partidak
- 12:00 Umeen pilota partidak plazan
- 12:30 Marrazki lehiaketa eta hamaiketakoak
- 14:00 Jubilatuen bazkaria elkartean, Juan Joxe Estanga trikitilariarekin
- 17:00 Umeentzako zirku tailerra. Bitartean, body painting Arantxa Orbegozo "Txitxi"-ren eskutik. Ondoren, txokolatada
- 17:00 Mus eta partxis txapelketa azkarra
- 19:00 Patata tortilla lehiaketa. Ondoren, ardo eta pintxo dastaketa
- 20:00 Triкитеens
- 24:30 Triкитеens
- 2:30 DJ Antxon Saez
- 7:00 Gaupaseroen argazkia

### Uztailak 1, larunbata

- 14:00 Paella txapelketa eta herri bazkaria. Ondoren, erruleta sorgindua
- 18:00 Elektrotxufla elektrotxaranga
- 20:00 Gabezin. Iluntzean, pote-pikoteoa
- 24:30 Gabezin
- 2:30 DJ Monto

### Uztailak 2, igandea

- 12:30 Meza Nagusia. Ondoren, ardoa eta gazta banatuko dira
- 13:30 Emakumezkoen frontenis finala
- 17:00 Atxur eta zartagin jaurtiketa
- 18:00 Umeen herri kirolak
- 19:00 Trikitilariak: Estanga anai-arrebak. Bitartean, pintxoak banatuko dira
- 20:30 Sari banaketa
- 21:00 Herri afaria. Ondoren Sorginkeriaren jolasa: amaiera
- 22:30 Andoni Oilokiegi
- Azkenik, traka finala

